# Dominio de lo femenino: carácter matriarcal de la mitología vasca

Desde sus inicios, los mitos vascos están plagados de criaturas zooformes: caballos, toros, jabalíes, cabras, carneros, culebras... que habitan ciertas cuevas. Sin embargo, sobre todos ellos reina un ser femenino con forma humana: *Mari*. De esta circunstancia cabe inferir que, en sus orígenes, la mitología vasca tuvo un carácter matriarcal. Hay criaturas celestes como *Ortzi* o *Urtzi* (Cielo), *Eguzki* o *Eki* (Sol) e *Ilargi* (Luna). Sol y Luna son entidades femeninas, hijas ambas de *Ama Lur* (Madre Tierra), a cuyo regazo regresan tras su periplo diario por el cielo. También *Hodei* pertenece al reino celeste; es el genio de los truenos, rayos y tormentas. Para protegerse de sus amenazas se coloca un hacha con el filo hacia arriba en la entrada principal de las casas.

Entre los seres terrestres y subterráneos se encuentran *Maju*, *Sugaar* o *Sugoi*, esposo de *Mari*, *Atarrabi*, *Mikelats*, *Etsai*, *Herensuge*, *Basajaun*, *Sorgin*, *Jentil*, *Olentzero*, *Inguma*... Entre los acuáticos, los principales son las lamias, tanto fluviales como marítimas. Y entre los vinculados al fuego cabe citar a *Eate* u *Orots*, que provoca incendios, tormentas y otros desastres.

Todos ellos tienen nombre, y, por consiguiente, existencia. Y jamás ha de decirse de ellos que no existen.

Juan Kruz Igerabide

# Izen, izan

EUSKAL MITOLOGIARI BURUZKO
ERAKUSKETA-INSTALAZIOA

INSTALACIÓN EXPOSITIVA
SOBRE MITOLOGÍA VASCA

Honako hauxe zioten euskaldun zaharrek sorginei eta pertsonaia mitologikoei buruz: «***Direnik ez da sinetsi behar; ez direnik ez da esan behar***». Izena duen oro ba omen da, hala dio esaera zaharrak. Gauza bakoitzak bere izena du; izen bakoitza gauza bati dagokio.
Gaur egungo Kantabrian, Euskal Herrian eta Akitanian Paleolitiko aroan bizi ziren gizakiek leize-zuloetan egin zituzten irudikatze artistiko-erlijiosoak, eta haietan agertzen diren animalia magikoak euskal mitologian gorde dira. Euskal mitoen sorburuan daudela esan daiteke.
Neolitikoan agertu ziren euskal mitologian Eguzki, Ilargi eta Lurraren mitoetako batzuk, zeru urdinarekin, mendiekin, hodeiekin eta iturri zein ibaiekin loturik. Euskal lurraldeetan sartuak ziren indoeuropar kulturen eraginez gertatu zen hori.
Gero, erromatarrek ekarritako mitoak ere bereganatu zituen euskal mitologiak. Horren ondoren, Kristautasunak modu askotara moldatu edo eraldatu zituen antzinako mitoak.

Los antiguos vascos decían de los personajes mitológicos que no hay que creer en su existencia, pero tampoco hay que negarla. Al fin y al cabo, según la antigua creencia, todo lo que se nombra existe. Cada cosa tiene su nombre, cada nombre corresponde a una cosa.
Los humanos que durante el Paleolítico vivieron en lo que actualmente son los territorios de Cantabria, País Vasco y Aquitania dejaron huella de representaciones artísticas y religiosas en diversas cuevas. Podría afirmarse que los animales mágicos o totémicos que aparecen ahí representados están en el origen de los mitos vascos.
En la etapa neolítica, la influencia de las culturas indoeuropeas que arribaron a este mismo territorio provocó que la mitología vasca se ampliara con mitos terrestres relacionados con el cielo, las nubes, las fuentes, los ríos, los montes... Así aparecieron *Eguzki* (Sol) o *Ilargi* (Luna). Posteriormente, los mitos aportados por los romanos se fueron incorporando al acervo mitológico vasco que, a su vez, más adelante sería adaptado y transformado de maneras diversas por influjo del cristianismo.

## Eguzki eta Ilargi

**Izen, izan**

Eguzki eta Ilargi emeak dira, Ama Lurraren alabak. Beste izen batzuk ere badituzte, Eki eta Argizagi, besteak beste. Eguzkiak urrundu egiten ditu parte txarreko izakiak, gauekoak, gauez agertzen direnak; Eguzkia irtetean, ordea, ahalmena galtzen dute. Ilargiak –Hil argi– egiten die argi hildakoei.

El Sol y la Luna son divinidades femeninas, hijas de *Ama Lur*, la Tierra. También se las conoce como *Eki* (Sol) y *Argizagi* (Luna). El Sol ahuyenta a los espíritus malignos, los gaueko, los que se manifiestan de noche y cuyo poder se desvanece a la salida del Sol. La Luna –*Hil argi*– alumbra las almas de los difuntos.

## Laminak

**Izen, izan**

Laminek giza itxura dute, animalia baten hankarekin. Lur azpian bizi dira, edo itsasoaren hondoan, eta erreketan nahiz putzuetan agertzen dira. Ikusi izan dituzte ahuntz-hankekin, ahate-hankekin, oilo-hankekin, edo beste animalia baten hankekin. Gauza kuttunen bat lapurtzen ez bazaie, laminek gizakiei lagundu egiten diete.

Las lamias son seres de aspecto humano con pies de animal. Viven bajo tierra o en el fondo marino y se asoman a la superficie a través de ríos y pozos; se las ha visto con patas de cabra, de pato, de gallina o de otros animales. A no ser que se les agreda robándoles algún objeto preciado, las lamias favorecen a los humanos.

## Maju, Sugaar edo Sugoi

**Izen, izan**

Maju, Mariren senarra eta haren seme-alaben aita. Maju eta Mari elkartzen direnean, berebiziko ekaitza sortzen dute. Lur azpian bizi eta leizeetatik irteten da kanpora Maju, Ataunen edo Aralarren, esate baterako. Suge arra –Sugaar–, batzuetan suzkoa, laminen jauna –Sugoi–.

*Maju*, esposo de *Mari* y padre de sus hijos e hijas. Los encuentros entre *Maju* y *Mari* desencadenan espantosas tormentas. Vive bajo tierra y se asoma a la superficie a través de ciertas cuevas, en Ataun o en Aralar, por ejemplo. Culebra macho –*Sugaar*–, con forma de fuego a veces, es señor de las lamias –*Sugoi*–.

## Sorginak

**Izen, izan**

Sorginen beste izen bat *belagile* da. Begizko eta sorginkerien bidez, berebiziko kalteak eragin ditzakete. Erne egon behar da sorgin baten seinaleak antzemateko: azalean ez dute batere orinik eta hatz potoloa eskumuturreraino tolesten dute.

A las *Sorginak*, las mujeres magas, también se las conoce con el nombre de *belagileak*. Con sus maleficios y hechizos pueden provocar los más grandes desastres. Hay que estar atentos a las señales que delatan a una bruja: no tienen ningún lunar en la piel y doblan el dedo gordo hasta la muñeca.

## Basajaun eta Basandere

**Izen, izan**

Basajaunek eta Basanderek giza itxura dute, baina gizakia baino askoz ere handiagoak dira. Gorputza eta burua ile luzez estaliak dituzte belaunetaraino, eta oin bat, berriz, biribila dute. Basajaun izan omen zen munduko lehen nekazaria, lehen errementaria, lehen errotaria, eta gizakiek hari ikasi omen zizkioten teknika horiek guztiak.

*Basajaun* y *Basandere* tienen apariencia humana pero son mucho más grandes que cualquier mortal. Tienen el cuerpo y la cabeza cubiertos de largos cabellos que les llegan hasta las rodillas y un pie redondo. Se dice que Basajaun fue el primer agricultor del mundo, el primer herrero, el primer molinero, y se cree que los humanos le arrebataron todas esas técnicas.

## Mari

**Izen, izan**

Mari, alde guztietan dagoen jainkosa. Airean zehar ikusi izan dute, lau zaldiko gurdi batean eserita, suzko isatsa atzetik duela; ahari baten gainean ere bai, edo erratz batean, edo atzetik kateak arrastaka daramatzala. Beti dotore, euskal mitologiako erregina. Lehenbizikoa.

*Mari*, la diosa ubicua y multiforme. Se la ha visto viajando por el aire sentada en un carro tirado por cuatro caballos, seguido de una estela de fuego, y también montada sobre un carnero, en una escoba o arrastrando cadenas. Siempre elegante, es la reina de la mitología vasca. La primera.

## Lur, Ama Lur

**Izen, izan**

Ama Lurraren barruan ibiltzen dira izaki mitologikoak, haren sabelean gordetzen dira egunez *gauekoak*. Lur-azala eta lurraren sabela leizezuloen bidez lotzen dira; leizeetatik abiatzen dira lur azpiko bideak, mundua alderik alde zeharkatzera.

*Ama Lur*, la Madre Tierra, en cuyo interior se mueven los seres mitológicos, en cuyo vientre se esconden de día los *gaueko*, los seres nocturnos. Cavernas y simas comunican la superficie de *Ama Lur* con sus entrañas: son las puertas de los caminos subterráneos que cruzan el mundo a lo largo y a lo ancho.

## Emea nagusi: euskal mitologiaren izaera matriarkala

Hasieratik, euskal mitoak abere-itxurako izakiz beterik daude: zaldiak, zezenak, basurdeak, ahuntzak, ahariak, sugeak... eta izaki horiek haitzulo jakin batzuetan bizi dira. Alabaina, guztien gainetik, gizaki-itxurako izaki bat ageri da denen buru: Mari. Beraz, badirudi ikuspegi matriarkal batetik abiatzen dela euskal mitologia.
Badira zeruko izakiak: Ortzi edo Urtzi, Eguzki edo Eki eta Ilargi; Eguzki eta Ilargi biak emeak dira, Ama Lurraren alabak, amaren magalera biltzen baitira egunero, zeruan zehar ibili ondoren. Hodei ere zerukoa da, trumoiak, tximistak eta ekaitzak ekartzen dituen jeinua; haren mehatxutik babesteko, aizkora bat jarri behar da ahoz gora etxeko sarrera nagusiaren aurrean.
Lurreko eta lur azpiko izakien artean, hor daude: Maju, Sugaar edo Sugoi, Mariren senarra, Atarrabi, Mikelats, Etsai, Herensuge, Basajaun, Sorgin, Jentil, Olentzero, Inguma...
Laminak, berriz, uretako izaki nagusiak dira, hala ibaietakoak nola itsasokoak; traganarruak ere badira itsasoan.
Bada sutako izakirik ere: Eate edo Orots..., suteen, ekaitzen eta hondamendien egilea.
Izena dutenez, ba omen dira. Ez direnik, behintzat, ez omen da esan behar.

Juan Kruz Igerabide

Bilbao
FUNDACIÓN BILBAO 700 - III MILLENIUM FUNDAZIOA
Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia
EL CORREO PARTE DE TI ZURE BAITAN
Deia